

Argi bila

TXILLARDEGI



ORAINTXE entzun dut: «ehun mila euskaldun gehiago dago Euskal Herrian»... Baina guztiz da ezinezkoa euskafa hutsez egun bakar bat ere egitea; ezta Gipuzkoan bertan ere. Beraz? Zer dira 'balentria' horiek?

Beharbada 'ehun mila euskaldun' horiek isilpekoak dira. Eta gu, aspaldidaniko euskeromanook, ez gara gauza euskararen loraldi harrigarri hori somatzeko...
Guk, jakina, inoxtok, Buesa ikusten dugu gailen eta 'gallo', EGUNKARIA itota, ikastolasarea deseginik, eta espamiarikeriak eta erdalerkiak oro, ausart eta harroturik. Tematuta gaude, ordea, itxura denez, itsututa...

Beharbada (agian hake) oker gaude. Eta neurri fidagarriago baten bila abiatutik, zer diote, adibidez, katalan abertzaleek? Hona hemen berriki Kataluñan idatzitako lerro hauek:

«Alguns problems actuals sorprenen per llur caràcter d'impensables ja a hores d'ara o bé per llur causes aparentment inexplicables...»

1.- Els estranyos pactes polítics que, atesa la situació actual, semblen a bell ull respondre més aviat a irresponsabilitat i claudicació que no pas a imposicions centralistes.

2.- El triomfalisme teòric que contrasta amb la realitat de cada dia.

3.- L'abandó del projecte lingüístic nacional. La moda de 'separar' llengua i nació constitueix un acte de renúncia i una irresponsabilitat col·lectiva...»

Zer esango dugu guk? Zer esan dezakegu 18 urtez 'demokrazian' (hemezortzi baino 20-N famatuaz geroztik), eta 'autonomia' bikotz honetan ez dakit zenbat gehiago, pasa ondoren? Zer esan funtsezkorik alegia, katalanek gauzak horren beltz ikusten badituzte?

«L'espanyol continua usurpant al català les funcions de llengua nacional»... Eta Euskal Herrian, zer gertatzen da? Nork esan dezake gurean euskararen geroa segurtatuta dagoenik? Edo-ta, Euskal Herriko egoera Kataluñakoa baino hobea denik?

Olerti 93

INAKI SEGUROLA



POETA gazte bati. Bazekiat bihotz-muinak eskutetan estuturik idazten duela, amiklegiaren hegirik mintzo haizela eta mundua zuztarretik harrotu nahi hukeela. Eskertzekoa duk.

Buruan sartu diate ordea, bi aditz luze, lau labur, dozenerdik bat atziki eta hogeiren bat berba zantiar inork antzik ez emateko moduan paratuz poeta egin daitekeela; tipografiaren laguntzarekin noski: badakik, lerroa bete gabe idatziz, zein baita gaur —heu ere antzemanik egongo haiz— poesiak poesiatzat ezagutua izateko behar duen baldintza premiazko bakarra.

Beharbada esanen didak poesia mailu bat dela, eta nik esanen diat araurik gabeko joko edo josteta baino gauza aspergiagorik ez duela sortu mudiak. (Aita Gabrielekek berak esan ohi zian 'olerkari' ez baita 'okerlari' izengoitia aiproposogoa zela).

Aztendua zegok gure munduan poesia idaztaren teknika. Bakarren bat bazebilek, gurean Orixe edo Mirande batekin itzali zena berpiztu nahian, poesia izenekoa ideien kartzelatik askatu eta atzera belarriaren mendera ekarri nahian. Lan gaitza duk. Bien bitartean, Kulturaren merkatuak poeta gazteen saldoa aldiari behin berri beharra eskatzen dik, eta hi ere lan ezazu haute. Ez duk harritzekoa: partiduko, gobernuak edo korteinglesak bezalaxe. Kultura ere gaur egunean nekez bizi liteke bere gazte-sail errebeldeakoa gabe. Ez baldintzeko esanen diate: gazte ameslari izanark curriculum asko jazen duela gerora Kulturaren exekutibo (edo exekutibo soil) bihurtzeko, edo gauza ederra dela gaztetako poematxoek heldutasunaren irifarre zirikoz begiratzea.

Hara, motell: astapetroa izango nauk, baina aukeran kasik hobe duk Molotov Maiakovski baino.

●Diario 16

Errusiako potentzia handirantz

Komunismoa hondoratzean Sobiet Batasuna desagertu zen, errusiar espansionismoak harturiko azken molde politikoa. Lurralde eta ideologi egitura hura desagertu izanak pentsarazi zuen Errusia bera ere desagere zitekeela.

Badirudi, ordea, herrialde hark potentzia handi izateko asmo sendoa duela, mundu osokoa ez bada ingurukoa behintzat bai. Hala gertatu da Errusiak Georgiako gerra zibilean esku hartu duenean Xevardnadze Sobiet batasun ohiko atzerri ministroaren alde egin duenean. Errusiarrek abkhaziar errebeldeei nabarmendu gabe lagunduz hasi ziren, aipatu Xevardnadzereen egoera jasanezina ziren arte, bigarren fronte batean borrokatu behar izan baituzten Gamsakhurdiaren aldekoekin. Orduan eta ez lehenago, eta Georgia EIKn sartzeko

akordioa tarteko, erabaki zuen Errusiak gerran sartzeko gobernu eratuaren alde. Horrekin argi utzi du Kaukasoz harandian agintzen jarraitzen duela.

EDITORIALA

●EL DIARIO VASCO

Protokolo polemikoa

Antzinako zeremonien arauak

ez dira gaur egun erabiltzekoak, baina autoritateei begirunea zorzaie eta bada protokolo sail bat onartua eta liskarrik sortu behar ez lukeena. Gure gizartean konkordia behar dela hainbestetan aldarrikatzen dituenek behar lukete lehenak honelako ekintzetan aplikatzen, protagonismoari ihes eginez eta beren menpekoei arau guztiak hausten dituen atxikimenduan erortzen utzi gabe.

Gainera, ez dirudi arazoa hain zaila denik, beti ere irizpide izanik —hemen dago, ziurrenik, auziaren muina— ordezkari poli-

tikoak (alkateak, diputatuak, Jaurritzako kontseilariak edo lehendakaria bera) ez direla ekin-tza hauek irabazteko txapelak edo dominak jartzera joaten, baizik eta, gehienetan, buru izatera. Zergatik, orduan, halako ukabilkada eta zangorabateak, nola edo hala podiumera edo oholtzara igotzearen? Horrelako okasioetan, protagonista nagusiak partehartzaileak eta kirol eta gizarte agintariak dira, ez politikoa.

TULINO / DEIA

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Bizkaiko Diputazione Forala ilegalitate linguistikoan

Harritu nau ikhustek igorri derautzuela komunikazio bat erdara (español) hutsez, neuk horretarako eskabiderik egin gabe. Bizkaiko Diputazione Foralak ongi dakikenez indarrean dago orain Euskararen Erabilpenarako *Legea*, zeinak bai dio Entitate Publikoek erabili behar dituzela mintzaria ofizial diren biak komunikazioe guztietan (euskara ofizial eta propioa dena eta espainola ofizial baino ez dena); salbu noiz interesatuta eskatzen ez bait du bietarik bat soilik erabili daiteela berarekiko komunikationetan.

Nik horrelatsuko eskabiderik egin ez dudala, ezin dut konprenitu zer gatik —legalitatez hautsiz— bidaltzen derautzauen ezin komunikationerik espainol hutsez. Bizkaiko entitate publiko gorenetik. Edozelan ere pensatzekoa litzateke Euskararen Erabilpenarako *Legearen* supervisiorearen kontrola egin beharko lukeela Euskal Gobernuko departamendu Hizkuntzaren Idazkaritza deiturik denak —jakitun direlarik gainera departamendu horretan ezen legea sarri hausten dela eta legearen hausteak punitione legal, admi-

nistratibo bat merezi duela; baina ezikhusia-rena egitea nahiago dukete, departamendu gobernatu gubernatu nahi ez duen horretan—.

Oraindik aitzina, ostera, nahi dut —*Legea* neure alde erabiliz— nirekiko komunikatione guztiak euskara hutsez egin diezazkizidazuen, expizitoki eta publikoki gutun honen bidez eskatzen derautzuedana. Nahiz jakin dakidan interpretazioe problemak ukhanez ditudala baldin *tradukzioe administrati-voetan* badarabiluzte UZEIren purismo lexikal absurdo eta inkorrektu ulertezin euskara egiazkoa ez dena.

Noiznahi eta nonnahi *Legea* betheko dukeela gure Bizkaiko Diputazione Foralak pentsaturik eta ustie izanik salatuzten zaituzte.

ERRAMUN GERRIKAGOITIA

Munitibar (Bizkaia)

Arrasateko AEDri

AEDk bete berri duen hamargarren urteurrean, zorionak! Zorionak bai, baina, erne! Egunotan gertak izun honen inguruan prentsan agertutakoaren arabera badirudi AEDren aurretik ezer ez zegoea. Badirudi AEDri esker eta AEDren ondoren sortu direla euskararen aldeko mugimendu guztiak. Eta hori ez da ho-

rela. AEDren aurretik, ondoren bezala, hamaika talde aritu da lan izugarria egiten. AED esperientzia kolektibo baten emaitza da. AEDk esperientzia hori aberastu egin du eta, ondoren, esperientzia aberasago horretatik beste batzuk sortu dira, beraiak ere esperientzia kolektibo aberastan. Eboluzio bat da, gure herri bera buru eta bere identitate-azugarri nagusienaren, euskararen, defentsan garatzen duena. *Horren baitan AED beste bat da, oso garrantzitsua, baina ez bakarra.*

Eta beraz, erne! Poztekoa da M.K. Garmendia AEDrekin batera argazkian ikustea. Baina oto! M.K. Garmendiak ez du beste batzuekin argazkian atertu nahi izaten. Iduri du Garmendiak oraindik euskara lanetan herri mugimenduan ainguratu eta deabruak ikusten dituela. Are okerrago, iduri du konbentziarazi nahi gaituela euskara lanetan batzuk onki eta besteak gaitxiak direla, batzuk aurterra eta besteak atzera egin behar dutela. Baina, ez gaitezen engaina eta joku horretan eror, alderdi politiko baten joku politikoa bota. Geuk geurean, elkarrekin. Garmendiarik inoiz, noski, baina guztiok, ez batzuk bakarrik!

Zorionak berriro AEDri eta zorionak euskara lanetan ari diren guztiak.

MANU OHIARTZABAL

Donostia

GAIA JARRITA



AEKeguna

AEK norentzako

ez da ezaguna,

emankorra izanda

beraren jarduna.

Eta hara igande

hontan daukaguna,

jai alai, jatorra

eta euskalduna:

ospa dezagun denok

AEKeguna.

HARITZ LOPATEGI

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDI IKUSKATUTAROK HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDA

Kontseilari Ordezkariaz: INAKI UREA

Gereñetik: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTELO OYAMENDI

Zuzendariordea: LUZIAN ETXEZABARRETA

Publizitate: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publizitatea: PUBLICITAS

Capitan Haya 1 2-a 28020 Madrid • 91 555 11 01 / Fax: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANITZA S.A. Industriadura 01-02 Pabiloak / 30100 Lasarte-Oria • 37 15 45 / Fax: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Anso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / • 46 90 22 / Fax: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1 Leher / 01005 Gasteiz / • 23 38 72 / Fax: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13 esk. / (Iruñea) / 31011 Iruñea / • 17 80 7879 / Fax: 17 80 77

Bizkaia: Zabaltzaren Enparantza, 2-1 Leherena / 48003 Bilbo / • 41 04 46 / Fax: 41 03 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1 / 503 Posta kutsantia, / 64100 Baiona / • 59 59 35 75 / Fax: 59 25 75 11